

**ANEXO I**  
**ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA**  
**EGITEKO TXANTILOIA**  
**ANEXO I**  
**PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA**  
**ANUAL DE ÁREA O MATERIA**

**Urteko/ikasmilako programazio didaktikoa**  
**Programación didáctica anual/de curso**

<b>ikastetxea:</b> <i>centro:</i>	ABADIÑO BHI	<b>kodea:</b> <i>código:</i>	015071
<b>etapa:</b> <i>etapa:</i>	DBH	<b>zikloa/maila:</b> <i>ciclo/nivel:</i>	1. maila
<b>arloan/irakasgai:</b> <i>área / materia:</i>	EUSKARA ETA LITERATURA		
<b>osatutako arloak/irakasgaiak</b> <i>áreas/materias integradas</i>	Hizkuntza eta literatura komunikaziorako kompetentzia		
<b>diziplina barruko oinarrizko kompetentzia elkartuak</b> <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia		
<b>irakasleak:</b> <i>profesorado:</i>	Maider Agirre	<b>ikasturtea:</b> <i>curso:</i>	2021-22

Zeharkako kompetentziak / *Competencias transversales:*

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia.
3. Elkarbizitzarako kompetentzia.
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia.
5. Izaten ikasteko kompetentzia.

<b>helburuak</b> <i>objetivos</i>	<b>ebaluazio-irizpideak</b> <i>criterios de evaluación</i>
<p>1.-Hizkuntzaren zenbait erabilera-eremutan sortutako ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko diskurtsoak ulertzea eta interpretatzea, zenbait motatako komunikazio-egoerei aurre egiteko. (1,2,3)</p> <p>2.-Bai ahoz eta bai idatziz modu txukun, koherente eta zuzenean espresatzea eta interaktuatzea, eta horretan, errespetua, kooperazioa eta espiritu kritikoa hartzea oinarri, zenbait komunikazio-premiari modu eraginkorrean erantzuteko.</p>	<p>1.-Ea gai den harreman interpertsonaletan, hedabideetan eta hezkuntzan sarri-sarri agertu ohi direnen moduko euskarri desberdinetako ahozko testuak ulertzeko (narrazio- eta azalpen-testuak eta testu hezigarriak, nagusiki), eta horretan, ea igartzen dion testuen zentzu orokorrari, ideia nagusiak ondo bereiziz eta kasuan-kasuan lortu beharreko helburua erdiesteko informazio pertinentea hautatuz.</p>

(4,5)

3.-Hizkuntzak diren sistemari buruz modu autonomoan gogoeta egitea, eta testuak ulertzeko eta ekoizteko prozesuan testuinguruarekin, testuarekin, esaldiarekin eta hitzarekin lotutako hizkuntzaren erabilera-arauak aplikatzea, hizkuntza modu txukun, koherente eta zuzenean erabiltzea eta transferentzia egokiak egitea helburu hartuta.

(6)

4.- Norberak hautatutako idatzizko, ahozko eta ikus-entzunezko literatura-testu erreferentziazko gozatzea, norberaren esperientziari zentzua emateko, mundua ulertzeko eta sentsibilitate estetikoan aurrera egiteko.

(11)

5.- Literatura-generoen eta literaturaren historiako etapa eta lan nagusien oinarriko arauak buruz ikasitakoak erabiltzea, denen artean literatura-testuak ondo ulertzeko, eta hori dela eta, literatura-ondarea esperientzia indibidual nahiz kolektiboa sinbolizatzen eta norberaren kultura-identitatea eraikitzen bidetzat hartzea.

(7,8,10)

6.- Oinarriko ezaguera soziolinguistikoetan oinarrituta, gure errealitate elebiduna eta, oro har, eleaniztasuna nahiz kultura-aniztasuna ezagutzea, interpretatzea eta balioestea, eta horretan, hizkuntza- eta kultura-aniztasunaren eta euskara eguneroko bizitzan erabiltzearen aldeko jarrera linguistiko enpatiko eta asertiboak bultzatzea eta sustatzea.

(12,13)

7.-Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu autonomo eta kritikoa erabiltzea, informazioa lortzeko, eta elkarrekin komunikatzeko eta kooperatzeko.

(14)

8.- Norberaren ikaskuntza-prozesuez gogoeta egitea, beste hizkuntza eta ikasgai batzuetan ikasitako komunikazio-ezaguera eta -estrategiak transferitzeko, eta norberaren ikaskuntza-gaitasunean konfiantza izatea, komunikaziorako kompetentzia hobetzeko.

(15)

2.-Ea gai den harreman interpersonean, hedabideetan eta hezkuntzan sarri-sarri agertu ohi direnen moduko euskarri desberdinetako idatzizko testuak ulertzeko (narrazio- eta azalpen-testuak eta testu hezigarriak, nagusiki), eta horretan, ea igartzen dion testuen zentzu orokorrari, ideia nagusiak ondo bereiziz eta informazio pertinentea hautatuz.

3.- Ea gai den, alde aurretik egindako plangintza bati jarraituz, hedabideetan eta hezkuntzan sarri-sarri agertu ohi direnen moduko gai akademikoei nahiz bestelako gai batzuei buruzko ahozko testu soil-soilak modu argi eta egituratuan sortzeko (narrazio- eta azalpen-testuak eta testu hezigarriak, nagusiki), eta horretan, ea txukun eta egoki erabiltzen dituen bai ikus-entzunezko teknologia berriak nahiz IKTak eta bai hitzeko nahiz hitzik gabeko baliabideak.

4. Ea modu egoki eta aktiboan parte hartzen duen gizarte-harremanetan eta eskola-esparruan sortu ohi direnen moduko ahozko elkarrizketa eta solasaldietan, eta ea baduen besteekin batera lanean jarduteko gogo eta interesik.

5. Ea gai den, alde aurretik egindako plangintza bati jarraituz, harreman interpersonean, hedabideetan eta hezkuntzan sarri-sarri agertu ohi direnen moduko idatzizko testuak paperean nahiz euskarri digitalean sortzeko (narrazio- eta azalpen testuak eta testu hezigarriak, nagusiki), eta horretan, ea kontuan hartzen duen kasuan kasuko komunikazio-egoera, eta ea badakien testuak modu egoki, koherente eta kohesionatuen idazten.

6.- Ea gai den, baten bat laguntzaile duela, testu, enuntziatu eta hitzak elkarrekin alderatu eta transformatu, eta hizkuntza-sistemari eta hizkuntzaren erabilera-arauak buruz gogoeta egiteko, eta ea gero badarabiltzan ezaguera horiek ulermen-arazoak konpontzeko eta testualizazio- eta berrikusketa-prozesuak hobetzeko.

7.-Ea baduen oinarriko terminologia linguistikoaren berri, eta ea terminologia hori badarabilen testuak ulertzearekin eta sortzearekin lotutako hizkuntzaren erabilerari buruzko jardueretan.

8.-Ea gai den, literaturari buruzko oinarriko bere ezaguera erabiliz, ahozko nahiz idatzizko literatura-testu laburrak irakurri, entzun eta ulertzeko, eta ea gai den testu horiei buruz bere iritzia emateko.

9.-Ea baduen ahozko nahiz idatzizko literaturaren berri, eta ea ezagutzen dituen konbentzio literario espezifikoak, ezaguera horien bidez edozein motatako literatura-testuak hobeto ulertzeko eta bere kultura-ezaguera aberasteko.

10.- Ea badakien ahozko eta idatzizko literaturaren berri, eta ea ezagutzen dituen literaturaren konbentzio espezifikoetako batzuk, horrela

	<p>literatura-testuak hobeto ulertzeko eta bere kultura-ondarea aberasteko.</p> <p>11.-Ea baduen irakurtzeko ohiturarik, eta ea literatura hartzen duen gozamen-iturritzat eta mundua ezagutzeko bidetzat.</p> <p>12.-Ea jabetzen den hizkuntza-aniztasunaz, ea balioesten duen aniztasun hori, eta ea, oinarriko ezaguera soziolinguistikoak oinarri hartuta, baduen hizkuntzen eta hizkuntza- aniztasunaren aldeko errespeturik.</p> <p>13.- Ea ari den ohitura eta jokabide linguistiko asertibo eta enpatikoak hartzen, eta ea testuinguru eleaniztunetan euskara modu proaktibo, kooperatibo, ekitatibo eta arduratsuan erabiltzen duen</p> <p>14.- Ea, informazioa bilatzeko, hautatzeko, kudeatzeko eta komunikatzeko prozesuan, gai den informazioaren teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzeko, eskolan egunero sortzen zaizkion premiei aurre egiteko</p> <p>15.-. Ea gai den bere ikaskuntza linguistikoaz gogoeta egiteko, eta horretan, ea baduen konfiantzarik bere ikaskuntza gaitasunean, hórrela bere burua erregulatzen ikasteko.</p>
--	---

**ARAZO EGOERA** [Arazo egoera bakoitzaren azken ataza, arazoa eta testuinguararen daturik errelenbanteenak agertuko dira.].

**SITUACIÓN PROBLEMA** [Incluirá los datos relevantes del contexto, el problema y la tarea final de cada una de las situaciones.].

- **1. arazo egoera / Situación problema 1**

Gaia: Abadiñori buruzko blog-a.

Maila: 1.DBH

Saioak: 1. ebaluazio osoan zehar.

Proposamenaren justifikazioa:

Garrantzitsua da informazioa hautatzen jakitea, helburuaren arabera. Eta baita modu egokian transmititzea ere, erakargarria izan dadin. Horretarako, bai hizkuntza-baliabideak eta bai IKTak erabiliko dituzte.

Arazo-egoera:

A. Testuingurua:

Gure herriari buruzko informazio asko dago, interesgarria eta erakargarria, konturatzen ez bagara ere. Gertatu daiteke, informazio hori norbaiti eman beharrean aurkitzea.

B. Arazoa:

Ezagutzen ez duen bati, Abadiño erakutsi eta ezagutarazi behar diogu.

C. Helburua:

Abadiñori buruzko informazio interesgarria, blog batean publikatzea.

Eginkizuna:

Talde txikian, Abadiñori buruzko blog-a osatzea, era ezberdinetako albisteekin, bitxikeriekin eta informazioarekin, gero publiko egiteko.

Blog-aren edukiak erabaki aurretik, eta forma ematen hasi aurretik, bakarkako zenbait aurre-lan ere egingo dira, informazioa nola idatzi eta eman ikasteko.

Bestelakoak:

Metodologia, denboralizazioa, ebaluazioa eta gainerakoak, aparteko eranskin batean jasota daude. (Eskatu, behar izanez gero).

Ikasle-taldearen arabera, ebaluaketako programazioaren arabera, posible da arazo-egoera modu batera edo bestera egokitu behar izatea.

- **2. arazo egoera / Situación problema 2**

Gaia: Euskara Mintegira eskaera-gutuna.

Maila: 1.DBH

Saioak: 2. ebaluazio osoan zehar.

Proposamenaren justifikazioa:

Eskariak hartzaile egokienari igortzea ezinbestekoa da gure nahiak lortzeko. Eta hartzaile horri mezua ahalik eta modu egokienean helarazten asmatzea zer esanik ez. Ohiko eskaera-gutun bat idatziko dute.

Arazo-egoera:

A. Testuingurua:

Urtero, ikasturte amaieran, ikuskizuna egiten da ikastetxean.

B. Arazoa:

Zenbait hobekuntza edota aldaketa egitea gustatuko litzaiguke.

C. Helburua:

Euskara Mintegiari eskaera-gutuna bidaltzea.

Eginkizuna:

Binaka, eskaera-gutuna idatzi eta bidaltzea Euskara Mintegiari, ikuskizunean egin nahi diren aldaketekin.

Eskaera-gutuna idatzi eta bidali aurretik, gutunen egitura, ezaugarriak, eta abar ikasi eta barneratuko dira.

Bestelakoak:

Metodologia, denboralizazioa, ebaluazioa eta gainerakoak, aparteko eranskin batean jasota daude. (Eskatu, behar izanez gero).

Ikasle-taldearen arabera, ebaluaketako programazioaren arabera, posible da arazo-egoera modu batera edo bestera egokitu behar izatea.

- **3. arazo egoera / Situación problema 3**

Gaia: Ipuin lehiaketa baterako ipuina.

Maila: 1.DBH

Saioak: 3. ebaluazio osoan zehar.

Proposamenaren justifikazioa:

Haur eta gazteentzat ipuin lehiaketak antolatzen dituzte udalerrri askotan. Lehiaketa bakoitzaren oinarriak irakurri eta jarraitu behar dira, ipuina horien arabera izan dadin. Abadiñoako lehiaketara bidaltzeko moduko ipuina idatziko da.

Arazo-egoera:

D. Testuingurua:

Abadiñoako Udalak ipuin lehiaketa antolatzen du urtero.

E. Arazoa:

Irakasleak lehiaketan parte hartzea nahi du.

F. Helburua:

Lehiaketara bidaltzeko moduko ipuina idaztea.

Eginkizuna:

Bakoitzak ipuina idatziko du, lehiaketara bidaltzeko modukoa, hau da, oinarriekin bat datorrena. Idazten hasi aurretik, ipuinen ezaugarriak, egitura eta abar aztertu eta barneratuko dira.

Bestelakoak:

Metodologia, denboralizazioa, ebaluazioa eta gainerakoak, aparteko eranskin batean jasota daude. (Eskatu, behar izanez gero).

Ikasle-taldearen arabera, ebaluaketako programazioaren arabera, posible da arazo-egoera modu batera edo bestera egokitu behar izatea.

**EDUKIEN SEKUENTZIA** [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

**SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS** [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

## 1. Ebaluazioa

### 1. Unitatea: Arriskua gozabide

- Entzumenak: Abenturaren prezioa, Xakea kirola da, Patinajearen sekretuak
- Irakurmena: Non gogoan han zangoa
- Hizkuntzaren erabilera: Perpausa eta haren osagaiak, Izen-sintagma
- Literatura: Poema jostalariak I

### 2. Unitatea: Hori Donna eta!

- Entzumenak: Poparen erregina, Musika eta letra, Venezuelako orkestra gaztea.
- Irakurmena: Inperio indiarra
- Hizkuntzaren erabilera: Aditz sintagma, Deklinabidea
- Literatura: Poema jostalariak II

### 3. Unitatea: Jeans-ak beti modan?

- Entzumenak: galtzak bete historia, Modako blogger euskalduna, Nire arropa nire txapela.
- Irakurmena: Gona denontzat
- Hizkuntzaren erabilera: Deklinabidea: kasu gramatikalak, Aditz laguntzaileak: Izan eta ukan
- Literatura: Kopla zaharrak

### 4. Unitatea: Letrak ala zenbakiak?

- Entzumenak: Erromatar zenbakera, Amaren liburutegia, Literaturaren bitxikeriak
- Irakurmena: Codex Gigas
- Hizkuntzaren erabilera: Deklinabidea. Leku eta denbora kasuak, Aditza: aditz trinkoak
- Literatura: Erromantzeak

## 2. Ebaluazioa

5. Unitatea: Digitalaren on-gaitzak

- Entzumenak: Gaitz digitalak, tabletak mugikorrek eta nerabeak, 3Dko inprimaketa
- Irakurmena: Jantzita eramteko informatika
- Hizkuntzaren erabilera: deklinabidea: gainerako kasuak, aditza: aspektua
- Literatura: Bat-baeko bertsolaritza

6. Unitatea: Ausardia ala izerdia?

- Entzumenak: Barry barrez, Kameratoia, filmak eta jatekoa
- Irakurmena: Gose jokoak errealitatearen kritika, fikzioan ezkutatuta
- Hizkuntzaren erabilera: deklinabidea: mugagabea, Perpaus motak
- Literatura: Bertso jarriak

7. Unitatea: Misil guztien gainetik

- Entzumenak: Elkarrengana bildu, Lau eskutara idazten, Azken desireri laguntzen
- Irakurmena: Ekialdetik iritsi zen Enara
- Hizkuntzaren erabilera: Perpausa: Baldintza, Aditza. Bladintza hipotetikoak
- Literatura: Olerkigintza I

8. Unitatea: hego poloa helburu

- Entzumenak: Natura garaile, maria euskara bere kabuz ikasi duen greziara, katalan bat Izurtzan
- Irakurmena: Amelia Eahart-en azken hegladia: argitu gabeko misterioa
- Hizkuntzaren erabilera: Perpausa: erlatiboa, Aditza: Nor-Nork aditz laguntzaileak
- Literatura: Olerligintza II

### 3. Ebaluazioa

9. Unitatea: Etorkizuneko janaria

- Entzumenak: Joylent, Zuberoako Arbailarren elikabidea, Janari estratosferikoa
- Irakurmena: Zergatik jaten dute zotzekin Asian?
- Hizkuntzaren erabilera: konparazio perpausak, Aditza: Nor-Nri aditz laguntzaileak
- Literatura: Antzerkia

10. Unitatea: Gure antipoda

- Entzumenak: Lurrealde harrigarria, Jane Goodall, txinpanzeen ikertzailea, Gasteizko eraztun berdea.
- Irakurmena: Iluntasunean, argi
- Hizkuntzaren erabilera: Perpaus osagarriak, Aditza: NOR-Nori-Nork aditz laguntzaileak
- Literatura: narrazioa I: ezaugarriak

11. Unitatea: Zorte ona zorte txarra

- Entzumenak: Zorteen ipuina, Astronomia eta astrologia, Katuaren historia
- Irakurmena: mitoak eta oroitzapenak
- Hizkuntzaren erabilera: denborazko perpausak, Aditza: ahalera eta agintera
- Literatura: Narrazioa II: Ipuin literarioak

## 12. Unitatea: XXL olatuak, mira ala izua

- Entzumenak: Mavericks, Udaleku, istorio euskal-amerikarra, Sorosleak
- Irakurmena: Kapitainarekin berriketan
- Hizkuntzaren erabilera: kausazko perpausak eta kontzesiboak, Aditza: subjuntiboa
- Literatura: Narrazioa III: eleberria

**METODOLOGIA** [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

**METODOLOGÍA** [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

Helburua argi utzi.

- Hasierako ebaluaketa: azalduko den gaiari buruz ea ikaseek zer dakiten.

Landu nahi diren edukien aurkezpena eta azalpena emango zaie lehendabizi, (sarritan baliabide digitalen laguntzaz: ordenagailua, internet, arbel digitala). Ondoren, edukiok bereganatzeko ariketak egingo dituzte (bakarka, binaka zein taldeka; koadernoan zein on-line).

Sarritan talde edo bikoteka egingo dugu lan (aurten talde-lanak on-line egingo dira)

Irakaslearen laguntzaz (talde handian) zuzenketak burutuko dira, sor daitezkeen zalantzak argitu eta okerrak zuzentzeko. Errepasoa etxerako lanen eta ariketa osagarrien bidez gauzatuko da. Baita etxerako lanen zuzenketa bidez ere.

Orokorrean prozedurei garrantzi berezia emango zaie; gaitasun komunikatiboak lantzeari, alegia (mintzamenari, idazmenari, entzumenari eta irakurmenari).

**Testu liburua:** Euskara eta Literatura (DBH 1) (Santillana)

Testu liburua ikasleei edukiak irakasteko erabiltzen da.

Irakur liburuak :

- **Jara** – Jasone Osoro
- **Ezekiel** – Jasone Osoro
- **Kittano** – Joxantonio Ormazabal
- **Amaia udalekuetan**-Onintze Gamiz (irakurketa erraza)
- **Bihotz Nahasiak** -Fernandi Morillo
- **Bihotz ausarta** – Joanes Urkixo
- **Urtegi Misteriotsua** - Aitor Arana



<p><b>EBALUAZIO-TRESNAK</b> [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]</p> <p><b>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN</b> [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...].</p>	<p><b>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK</b> [ebaluazio-irizpide bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p><b>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN</b> [peso y valor de cada criterio de evaluación].</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eguneroko behaketa</li> <li>- Azterketak</li> <li>- Lanak (banaka, taldeka)</li> <li>- Eguneroko ariketak</li> <li>- Kontrol orriak</li> <li>- Irakasleak</li> <li>- Egindako ebaluazioa</li> </ul> <p>Ikasgai bakoitzaren bukaeran frogatzea idatzia egingo dute. Frogak bakarka zein taldeka izango dira.</p> <p><u>Ebaluazio bakoitza gainditzeko honako baldintza hauek bete behar ditu ikasleak:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Agindutako lan guztiak egin behar ditu, bai ahozkoak bai idatzizkoak.</li> <li>- Kurtso osoan bi liburu irakurri beharko ditu. Derrigorrezkoa da liburua irakurtzea.</li> <li>-Ebaluazio bakoitzean ahozko frogatzea eta idatzizko lan bat egingo dute.</li> </ul>	<p>Ebaluazioko nota honela kalkulatu dugu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Azterketek notaren %40 suposatuko dute. Hala ere, ebaluazioa gainditzeko ikasleak 3koa atera beharko du, hamarretik.</li> <li>-Ahozko eta idatzizko frogak, proiektuek, eta egunerokoan eskatutako beste hainbat lanek, %40.</li> <li>-Irakurketa liburuak %10</li> <li>-Euskara egoera formalean erabiltzeak (irakaslearekin hizketan eta ikaskideekin klaseko lanetan), jarrera eta portaerak %10.</li> </ul> <p><u>Kurtsoa gainditzeko:</u> hiru ebaluazioen batzuek bestekoa egingo dugu.</p> <p>Kalifikatzeko eredu honek aldaketak izan ditzake egoerak horrela <b>eskatzen badu</b>.</p>

**EBALUAZIOAREN ONDORIOAK** [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...].

**CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN** [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].

Ebaluazio jarraia denez, ebaluazio bat gainditu ezean hurrengo bat gaindituz gero, aurrekoa gainditzen da.

Ekainean, ohiko deialdian arloa gainditu ezik, ezohiko proba burutzeko aukera izango dute. Ezohiko ebaluazioa gainditzeko ere urteko hiru irakur liburuak irakurrita izan beharko dituzte.

Irakur liburua gainditu ezean lanen baten bidez berreskuratzeko aukera egongo da; hala ere, gainditzen ez bada, ekainean ezohiko proban beste aukera bat izango dute.

#### OHARRAK / OBSERVACIONES

- Ebaluazioan zehar, notarako kontuan hartuko den edozein ataletan 3 baino gutxiago aterata, suspentso izango da ebaluazioko notan.
- Derrigorrezkoa da irakur-liburua irakurtzea ebaluazioa gainditu ahal izateko.
- 3.ebaluazioan, 9. unitateko gaiak (Etorkizuneko janaria) ematen digun aukera aprobetxatuta, institutuan A21 proiektuaren eskutik aurten ildo nagusi izango den "Elikadura zuirkularra" gaia garatuko dugu.